



Xotero Plazaola alkatea, ezkerrean, eta 400 urtez aske batzordeko kideak, egitarauaren aurkezpenean. MIRIAM LUKI

Seguratik askatu zela 400 urte betetzen direla eta, ekitaldi ugari izango dira

Legazpi » Hitzaldiak, Euskal Herri mailako mendi martxa eta ikuskizun berezia izango dira besteak beste urteurrenaren harira.

MIRIAM LUKI

Legazpi, 400 urtez aske lelopean antolatuta ditzuten ekitaldi guztien berri ostiral iluntzean eman zuten Legazpin, urteurrenaren propio sortu duten batzordeko kideek eta Xotero Plazaola alkateak. «Orduko legazpiarrek borroka luzea egin zuten hiribildu izateko helburuarekin. Gaurko legazpiarrek atsegin hartu dute urteurrenaren inguruko ospakizunak antolatzeko lana eta eskertzekoa da. Batzordea irekia da, ordea, eta zenbat eta herri gehiago parte har tu, orduan eta aberatsagoa izango da», esanez animatu zituzten legazpiarrek ekitaldietan parte hartzera.

Legazpi Seguraren jurisdikzio-tik banatu eta hiribildu bihurtu zenetik 400 urte betetzen dira aurtten, eta irailetik batzorde bat aritu da ospakizunak antolatzen. Xabier Lopez de Munain historiagile eta Legazpi Udaleko artxibozainak historiarekin lotutako ekitaldien berri eman zuen. «Hilero hitzaldi historikoak antolatuko ditugu». Lehena otsailean da; Burdinola elkartearen eta Udaleren lankidetzari esker antolatuko dituzte hitzaldiak. Zumarragako artxibozain Antonio Pradak Legazpi elizari buruz idatzitako liburua ere kaleratuko dute aurtten.

Korosti dantza taldeko Amaia Aizpuruak urriaren 4rako antolatu zuten ari diren ikuskizunari buruz hitz egin zuen: «Herriko kultura taldeetako kideek Legazpiaren as-

kapena eta 400 urte hauetan gure herriak izan duen bilakaera irudikatuko dugu Bilkuña kiroldegian».

Bilakaera, ikuskizun bihurtuta
Bilakaera hori «modu alai eta atsegin batean» irudikatuko dutela ere gehitu zuen Aizpuruak.

Oraingoz ikuskizun horretarako talde hauek eman dute baietza: Korosti, Sustraiak, Santikutz eta Jubilatuen abesbatzak, Legazpi Musika Banda, bertso eskola, Belloa elkarte, Doinua musika eskola eta Alaitasuna errondaila. San Joan alardekoek eta helduen dantborradako ordezkariek ere parte hartuko dute.

Urtean zehar 400. urteurrenaren presentzia Legazpin urtero egin ohi diren ekitaldi eta ikuskizunetan ere egongo da.

Datorren asteko inauterietako konpartsan, esate baterako, Domingo Agirre eskolako ikasleek gai horixe aukeratu dute euren konpartsarako. «Artzain Egunean eta Mirandaolako egunean ere urteurrenaren presentzia izango du, baina oraindik nolako izango den ez dugu erabaki».

Ospakizuna Legazpi inguruko mendietara ere eramango dute, baita internetera ere.

Logotipo irabazlea

Aukerarako deitu duten logotipo lehiaketan Lander Zabaleta legazpiarra izan da irabazle. Plazaola alkateak eman zion saria. Bestetik, urteurrenaren webgunea berezia sortzen ari direla ere iragarri zuen Bittor Larrazak, errondailako kidea eta diseinatzailea bera.

AIZKORRIN BARRENA MENDI MARTXA

Jose Luis Ugartek hartu zuen hitza aurkezpen ekitaldia amaitzeko. Burdinola eta Izadi-zaleak elkarrekin batera antolatuta ditzuten bi mendi irtetaren berri eman zuen: Legazpi-Segura eta Aizkorrin barrena mendi martxa. Maiatzaren 18an Legazpitik Segurara joango dira, «ahal den gutxietan antzinako bideetan barrena. Irteera horrekin legazpiarrek XVI mendean oinez egin behar zuten bidea gogoratuko dugu, esate baterako Segurako alardean parte hartzeko». Ibilaldia familiar egiteko modukoa dela gehitu zuen Joana oinez eta buelta autobusez egingo dute.

Euskal Herri mailako mendi martxa antolatu dute, bestetik, urriaren 12rako, Aizkorrin Barrena mendi martxa hain zuzen. «Senderismoa sustatu, Legazpi inguruko ondare naturala ezagutarazi, Aizkorri parke naturalerako atea Legazpirako aldarrikatu eta legazpiarren arteko auzolana bultzatu nahi dugu».

Bi ibilbide izango ditu mendi martxak: bat luzea, 30 kilometrokoa, eta bestea 10-12 kilometrokoa. «Bietan antzinako bideak hartuko ditugu, hala nola Arabako bidea, erromes bideak edota Biozkomako bidea». Ibilbidea ikusgai dago Izadi-zaleak elkarrekin webgunean zintzilakatu duten erreportajearen (www.izadi-zaleak.com/mendimartxa).

Mendi martxa bukatu ondoren, parte-hartzaileei festa giroan egingo diete harrera, Brinkolako geltokian propio jarriko dute tabernan Arri Urdin elkarrekin, Gaztebeak, Izadi-zaleak eta Burdinolako jarriko dute. Agen-21eko Foroari ere parte hartzeko deialdia egin zioten.

EAE-ANVk airearen kalitateari buruzko txostena osatu du



Ezkerretik eskubira Barrena, Garmendia eta Albisua. MIRIAM LUKI

Zumarraga » Airearen kalitateari buruzko datuak jasotzeko bideen berri eman dute, «herritarrek eskura izan ditzaten».

M. LUKI

Zumarragako EAE-ANVk airearen kalitatearen inguruko txostena osatu du. Atzo aurkeztu zuten kultur etxean Airearen inguruko datuak eman zituzten, informazioa non eta nola bildu daitekeen jakinarazi eta alderdiaren proposamenak zeintzuk diren azaldu zituzten.

EAE-ANVko Aitor Garmendia, Eneritz Zabaleta, Xabier Barriola eta Inma Albisua bi hilabete aritu dira gaia lantzen. Lan horren ondorioa da atzo aurkeztutako txostena. Ikerketaren arabera, eta Eusko Jaurlaritzak bere webgunean eskaintzen dituen datuak erabiliz, Zumarragako airearen kalitatea «txarra» dela esan zuten.

PM10 partikulak

Agerraldian airearen kalitatearen kontzeptuaz aritu ziren, araudiak dioena ere hizpide izan zuten, Eusko Jaurlaritzak ematen duen informazioa, Izazpi auzoan dagoen neurgailu automatikoa, PM10 partikulek sortzen duten kezka, osasunean aire kutsatuak sortuzaketen kalteak, lazko azken sei hilabeteko datuak Zumarragan,

Jaurlaritza eta Udala egiten ari direna, prentsako erreferentziak eta EAE-ANVren proposamenei buruz hitz egin zuten atzokoan.

Egun PM10 partikulen datuak «kezkarri» direla azaldu zuten. «Partikula hauek airean daude eta euren tamaina eta giza-gorputzean duten eraginaren arabera sailkatzen dira. PM10 partikulek 10 mikrometroko tamaina baino txikiagoa dute, eta bronkiotaraino sartzen dira», argitu zuen Aitor Garmendiak. Hautsez, kez edota industriako eta nekazaritzako gai toxikoz osatuta daude.

Zumarragako datuak

Zumarragan araudiak ezarritako mugak «askotan» gainditzen dira atzo emandako datuen arabera, horrek herritarren osasunean sor ditzakeen kalteekin.

Airearen kalitatea ona ez dela ikusita, EAE-ANVk ondoko proposamenak egiten ditu: Arcelorrenko aspirazioa berehala berritu eta aldatu beharra, aspirazioaren jarraipena egin beharra, osasunean izan dezakeen eraginaren txostena berehala egitea eskatu behar zaio Osakidetzari, PM10 osagaiak analizatu eta neurtu behar dira eta herritarak ohar tarazteko protokoloa jarri behar da martxan.

EAEk osatu duen airearen kalitatearen inguruko txosten osoa irakurtzeko ondoko webgunea erabil daiteke: www.zumarraga-koanv.wordpress.com.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA